



Gehigarria

Euskaldun neska bat Bordelen

XX. mende huntan, milaka izan dira beren herria gazterik utzi duten euskaldunak, maizenik lana eskasagatik, kanpotik beste hainbertze etortzen zirelarik. Burasoek, etxeokoez zer kondizionetan, zer funtsetan bizi ziren jakin gabe. Senperen ere kantatzen ziren jakin gabean, Joanes Etxamendi zenaren bertsoak. Huna oraikoan osorik, Urkaiko Minaberriri esker, bederatzi bertsoak.

- 1 Pasaian izatu naiz doi-doi Frantzian
Euskal Herri maitean zer alegrantzian
Gogoetak bat badut gu denak bizian
Kurrituz gabiltzala esperantzian.
- 2 Egun dudan suieta ez da irringarri
zuzenerat joanez da deitoragarri
Bordelen gertatu zaut kasu bat galgarri
Neskentzat zenbait kobla nahi tut ezarri.
- 3 Baserritik neskatxak hirirat ihesi
Euskal Herrian ere asko badoatzi
Partitzean serioz ta gero goraintzi
Ongi gordetzen dute nola diren bizi.
- 4 Bainan nik erranen dut ikusi dutana
Bordeleko hirian neska euskalduna
Bizitze berri bati han dago emana
Mila liberarentzat egiten du lana.
- 5 Lan hori zer daiteken nik ez dut errango
Zeren hirian baita holakoa frango
Hamar manamendutan bat bada akabo
Denbora joanago fedez ahulago.
- 6 Burasoek ez dute hanbat arrangura
Berri onak dituzte ukaiten ardura
Agerian den gauza eta hau segurra
Plazer lizunetarik ez dago barura.
- 7 Euskal Herrin dakitan xokoño batean
Ez du hori ikasi hak bizkitartean
Ulerturen nauzue guziek agian
Baionatik has eta Maulerat artean.
- 8 Familia onetik jalgitzen da segur
Hango bizi moldeaz iduriz ez beldur
Lehen etxe zaintzeko bazuzten lau zakur
Bordelen ez baitute bada azki makur.
- 9 Adixkide maiteak izan zaizte ontsa
Bertsuen ikasteko har zazue funtsa
Kanbiatuko dela izan esperantza
Galdeginez harentzat zeruko laguntza.

Joanes Etxamendi Buztintzekoa
1934-1971



Airea: Dama gazte
charmant bat

Jako
Irubetagoienaren
ahotik, Urkoiko
Minaberriren
laguntzaz.


Urrezko Ezteiak

- 1 Aire xahar batean pertsu bat edo bi
erraiteko Senperen orai zer den berri
zoriondun eguna zaiote etorri
Amotz Olandegiko Robert ta Fifini
lara lara lara Robert ta Fifini.
- 2 Berroita hamar urte direla ezkondu
Semeak ta alaba dituzte izatu.
Lurrarekin borrokan hor dire aritu
zeruko Jainko Jaunak lagunduko ditu
lara lara lara lagunduko ditu.
- 3 Agian ainitz urtez Robert eta Fifin
Jaunak dautzuetela: zorion, atsegin
Osagarri bat ona, omorearekin,
maiz maiza dezagula kanta elgarrekin
lara lara lara kanta elgarrekin.



Jean Pierre
SOUDRE
Istilarterkoa

Eguntxo batez nere andria dantzan zabillan



Airea:
Andre Madalen

Bergara,
Ganix
«Txistulo»
eskainia

Andre hoientzat badugu
beti zerbait errateko, nahiz
horien beharra badugun:
gure pertsulariarenak dan-
tzan maiteago omen lana
baino!

- 1 Eguntxo batez noiz esango dut igande illun nabarra,
Neure andria dantzan zabillan begira ziagon Nafarra.
Lan egitako gogo txikia fandangolari azkarra,
Negorri bertan han izan banintz hautsitzen nion bizkarra.

- 2 Nere andriak josten'ta plantxan, brodatzen ere badaki,
Kozinaria nor nolakua lan guztietan egoki.
Katilu salda arduarekin gorputza sano iduki;
bere burua mantenitzen du senarra bañon hobeki.

- 3 Eskal burutik amildu eta beitaraino zuzen,
Lendabiziko pentsatu nuen eltze tzarrenbat ote zen.
Hanka bat zeukan Bitorian'ta bertzia herritz Londresen

- 4 Uda partian aritzen ginen aita semiak labrantzan,
Andria berriz ganberatikan tabernarako arrantzan.
Neure buruaz arnegaturik Euskal Herriatik jua nintzan;
Horra umiak amaren faltan gaxuak nola dabiltzan.